

HONDARRIBIAN

Zer berri?



Jose Ramón Mutuberria Daguer *Mutu*

Gizon ona. Eskuzabala. Langilea. Isila. Diskretua. Lasaia.
Irribarretsua. Eta beti laguntzeko prest. Horrelakoa zen Mutu.

Lujunea baserriko semea, beti egon da baserriarekin lotuta.
Nekazaritza ingenieria ikasi zuen.

Lurrak, baratzak, Jaizkibel mendiak eta bere familiak izan dute beti arretarik handiena. Azken urte hauetan, kezkarik handiena **ama zaintzea** izan zen. **Baserriaren munduaren alde borrokatu du**, lanbide horrek merezi duen balioa emateko. **Hondarribiko Alardeko Montaña Konpainiako kidea** txikitatik, teniente kargua hartuz azkeneko urteetan. **Alkartasuna elkarteko kidea** ere izan da. **Zumardikoak Elkarteko lehendakaria**. Euskal kultura eta **Euskadirekin konprometitua zegoen gizon abertzalea joan zaigu**. Utzi duen hutsunea handia da. Bere bizitzan inguruko guztiei eman duena bezain handia. Familiak eta lagunek faltan botako dugu. Askok gainera!



“Maquillaje político” en la operación de Montañenea

El Gobierno de Abotsanitz presentó como un **gran logro el nuevo convenio urbanístico de Montañenea**, asegurando que se han conseguido 25 viviendas públicas, una prestación económica de más de 5 millones de euros y una intervención en el mercado inmobiliario en favor de las familias hondarribiaras. **Sin embargo**, un análisis detallado del convenio demuestra que estas afirmaciones **ocultan información clave y maquillan la realidad de los hechos**.

Abotsanitz dijo que el Ayuntamiento ha conseguido “25 viviendas públicas y también una prestación de 5.136.426,99 euros”. Esta **afirmación es engañosa**. En realidad, el Ayuntamiento no recibe esa cantidad en efectivo, sino un edificio de viviendas de protección pública valorado en esa cifra.

Unas **viviendas públicas que serán construidas por la promotora sin haber realizado un concurso público**. Una adjudicación directa, sin competencia y sin posibilidad de reducir los gastos.

Los datos demuestran que **se ha exagerado el valor de la compensación municipal** y la **intervención en el mercado inmobiliario es limitada y beneficia a la promotora**. Se ha permitido un **aumento del 80% en la edificabilidad**, lo que supone un **incremento significativo de la vivienda privada en la zona**. Además, **se adjudica directamente a una promotora la construcción de las viviendas públicas**, sin llevar a cabo un concurso público para la obra, con el consecuente aumento de costes que supone.

No es un buen acuerdo para Hondarribia.



Etxebizitza pribatu gehiago



Zuzeneko esleipena, lehiarik gabe.



Nork irabazten du?



2024KO KONTUEN LIKIDAZIOA

Duela egun batzuk, **Igor Enparan** alkateak **ziurtatu** zuen **Udalak 2024ko udal-aurrekontuaren % 90 gauzatu** zuela. Hala ere, txosten teknikoek oso bestelako **errealitatea** islatzen dute: **benetako exekuzioa ez da % 68ra ere iristen**. Horrez gain, **alkatearen konpromiso asko ez dira bete**. Muliatego oinezkoen zubia, Mendeluko Open Gela, San Telmoko gazteluko ikerketa lanak, hiri-autobusa, landa- bideak hobetzeko Auzobideak proiektua, kiroldegia **ren udal-kudeaketa**, bidegorri sarea handitzea, GKEentzako dirulaguntzak, dueluarekin laguntzeko programa...

12 milioi baino gehiago aurrekontuan sartu ziren eta ez dira gauzatu. Horregatik **ulertezina da** udal gobernuak bere kudeaketa saltzeko erabiltzen duen **tonu triunfalista**, helburua errealitatea ezkutatzea ez bada behintzat.




SUBVENCIONES ONG

EAJ-PNV presentó una moción en el pleno de febrero que se aprobó con los votos a favor de todos los grupos políticos.

En 2024 el Ayuntamiento de Hondarribia no realizó la convocatoria de subvenciones a las ONG. A pesar de ello, las organizaciones siguieron realizando su actividad para desarrollar los proyectos de cooperación. En el pleno del mes de febrero, solicitamos duplicar la cuantía de las subvenciones de 2025 para poder cubrir proyectos de los dos ejercicios. Agradecemos a todos los grupos políticos su apoyo a la moción presentada por EAJ-PNV.

50 millones para transformar la movilidad en Bidasoaldea



La Diputación Foral de Gipuzkoa, junto a los Ayuntamientos de Irun y Hondarribia, ha presentado un plan de movilidad para Bidasoaldea con una inversión de 50 millones de euros. El objetivo es mejorar la conectividad, la seguridad vial y fomentar una movilidad más eficiente y sostenible.

Principales actuaciones en Hondarribia:

- **Nueva variante en Amutalde:** conexión de la N-638 y la GI-636 con dos rotondas para mejorar accesos y descongestionar el tráfico.
- **Zona Mendelu-Eskapatxulo y enlace en Zubi-Muxu:** creación de nuevos accesos y mejora de la movilidad peatonal y ciclista con bidegorris y aceras.
- **Nueva rotonda y bidegorri en Amute:** eliminación de semáforos para agilizar el tráfico y construcción de un carril bici-peatonal.

AMUTE



Semaforoen elkargunea desagertuko da eta auzoan sartzeko biribilgune bat eraikiko da.



BIDEGORRI BERRIAK

Bidegorri bat sortuko da aireportuko errepidean eta Mendelu eta Zubimuxu lotzeko formulak aztertuko dira



TRAFIKOA

Inbertsioen helburua trafikoaren arintasuna hobetzea eta Bidasoaldeko hainbat puntutako auto-ilarak murriztea da.

HONDARRIBIA KIROL EREMUKO LURREN JABE IZANGO DA

Urteetan zehar, **Hondartzako lursailen etorkizunari buruzko ziurgabetasunak** kirol-instalazioetan hobekuntzak egitea eragotzi zuen, Trantsizio Ekologikoko Ministerioaren blokeoa zela eta. **EAJ-PNVek Kongresuan egindako esku-hartzeari esker**, gai hau Pedro Sanchezen inbestidura-akordioan sartu zen, **egoera desblokeatzea ahalbidetuz**.

Espainiako Gobernuak administrazio-prozesua hasi du, eta **orain Hondarribiko Udalak izapideekin jarraitu behar du**.

Azken urteotan, proiektu eta inbertsio asko geldirik geratu dira, Udalak ez zuelako horretarako baimenik: Hondartza futbol zelaian belarra aldatzea, Hondarribiko Futbol Elkartek eskatuta, kiroldegiko kanpoko pistetan hobekuntzak egitea, etab. Baina **orain, espediente hau hasi denez, inbertsio horiek gertuago daude!**



BIDASOA OSPITALEKO OBRAK, MARTXAN!

2027ko udan, **Bidasoa Eskualdeko Ospitaleak bloke kirurgiko berri bat izango du**. Bertan **sei ebakuntza-gela berri jarriko dira**, gaur egun baino bi gehiago. Proiektuak **Suspertze Unitatea** sortzea aurreikusten du, egungoa baino gaitasun handiagoarekin, eta horrek **zentroaren ahalmen kirurgikoa handitzea ahalbidetuko du**.

Ospitaleko Bloke Kirurgiko berria egiteko, beharrezkoa da eraikineko bigarren solairuan Zuzendaritzak eta Bidasoko ESiko beste sail eta zerbitzu batzuek okupatzen duten espazioa libre uztea.



Aitor Esteban Bravo

Euskadi Buru Batzarreko presidentea



IX.BATZAR NAGUSIA - ALDERDIA GARA

Atano III pilotaleku historikoa izan da EAJ-PNVren IX. Batzar Nagusiaren eszenatokia martxoaren 29an eta 30ean. Bertan, **alderdiko presidente berria** eta lau urteetan alderdia zuzentzeko misioan lagun izango dituen 14 burukideak aukeratu dituzte.

EBBren presidente gisa eman duen lehen diskurtsoan, jendez gainezka egon den Atano III pilotalekuan, Estebanek alderdikide guztiei eskertu die berarengandik jarritako konfiantza, EAJ-PNVren lidergoa aldarrikatu du eta **gazteei mezu bat zuzendu die: “Zuek zarete Alderdiaren oraina”**.



Ekitaldiaren informazio eta argazki guztiak [hemen](#) aurkituko dituzu!